



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Arrunta
Eguna: 2022.03.24
Ordua: 18:00tan
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2022/01/25eko akta aho batez onartzen da.

2. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak adierazten du Arantzako Udalak administrazio elektronikoa abiarazi duenez, honako hauek nola kudeatu arautzen duen ordenantza onartu beharko litzatekela.

Hau horrela izanik, Administrazio elektronikoa arautzen duen Ordenantza azaltzen du idazkariak. Honako hau onartu ahal izateko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325 artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra da.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Administrazio elektronikoa arautzen duen Ordenantzari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ezean, behin betikoa egite testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. ARANTZAKO UDAL LAEE ONESPENA.

Osoko bilkurak 2018ko urriaren 8an egindako bilkura arruntean, Arantzako Udal Plan Orokorra onartzeko prozesua hasteko erabakia hartu zuen, eta Arantzako Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Ereduaren atariko bertsioaren dokumentua jendaurrean jartzea erabaki zen, hilabeteko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Horrela, herritarrek iradokizunak egin ahal izateko, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jendaurreko epea igaro ondoren (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 205. zk., 2018ko urriaren 23koa, eta Noticias y Navarra egunkariak), Partaidetza Planaren ondorio hauek eta fase honetan egindako txostenak hartu dira kontuan.

Era berean, Arantzako Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Ereduaren dokumentua aldeztuz Lurraldearen Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloan eskumena duen Sailarekin itundu da, definitutako lurralde-eredua osatzen duten elementuei buruz eta Udal Hirigintza Planaren fasean garatu beharrekoak buruz. Ondorioak eta gogoetak 2019ko maiatzaren 10eko Txosten Teknikoan ezarritakoak dira.

Era berean, LFOTUren testu bateginaren 71.5 artikuluen edukia ikusita, Udalbatzak, aldeztuz aitzinetik eztabaidatu ondoren, honako hau ERABAKI DU LEGEZKO GEHIENEK:

- 1.- Arantzako Udalak izapidetzen duen Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredua onartzea, Arantzako Udal Hirigintza Plana onartzeko prozesuari dagokionez.
- 2.- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Arantzako Udalak sinatu beharreko Aurreiazko Itunaren idazketa onartzea, ondoren Udal Hirigintza Plana idazteko.

3.- Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredua onar dezan izapidetutako espedientea lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen sailari bidaltzea.

4.- Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredua onartu ondoren, Udal Hirigintza Plana idazten hastea.

5.- Erabaki hau eta Arantzako Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredua udalerraren webgunean argitaratzea, herritarrek eta interesdunek espedienteaz aztertu ahal izan dezaten.

4. EHIZA-BARRUTI BERRIAREN ERATZEA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak adierazten du Arantzako ehiza-barrutiaren iraupena 2021-2022 ehiza denboraldian bukatzen dela. Horri dagokionez, iraungitako ehiza-barruti berria eratzeko eta haren aprobetxamendua esleitzeko, nahitaez bete behar da Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean eta hori garatzeko eta betearazteko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretuan ezarritakoa.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Ehiza-barruti berria eratzeko proiektuari hasierako onespena ematea, barrutian sartu beharreko mugapea Arantzako udalerrira izanik.

2.- Lurren lagapena isilbidezkoa zehaztea, ehiza-barrutia eratzeko proiektuaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz egun baliodunean barrutian sartu beharreko lurren jabeek aukera izan dezaten lurak barruti horretan sartu nahi ez dituztela berariaz adierazteko.

3.- Ehiza barruti horren iraupena 10 ehiza-denboraldikoa izatea; azkena, 2031/2032 denboraldia.

4.- Usua Tokiko Ehiztarien Elkarteari (IFK: G31397128) adjudikazio bidez egindako aprobetxamendu bakarra esleitzeko prozedura ezartzea.

5.- Ehiza-barrutiaren ehiza-aprobetxamendua esleitzeko baldintzak onartzea.

6.- Akordio hau Nafarroako Gobernuak Naturako Ingurumeneko Zerbitzuari jakinaraztea.

7.- Akordio honen berri bando bidez zabaltzea herritar eta interesdun guztiek jakin dezaten, euren ezaguera eta ondorioetarako.

5. BIKOTE EGONKORREN UDAL ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN IRAUNGITZEA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma onartzen duen martxoaren 1eko 1/1973 Legearen 106. artikulua aldatzearen ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren erregistro bakarra sortu da, eta, beraz, udal-erregistroek jada ez dute bikote egonkor berriak eratzeko gaitasunik, salbu eta hitzarmenari atxikitzen bazaizkio, eraketa udalean ere formalizatu ahal izateko.

Nolanahi ere, bikote egonkorren udal-erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzaren bidez bikote egonkorak eratzeko aurreko arauketak ez du eraginkortasunik. Horregatik, indargabetu egin beharko litzateke, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Hasierako onespina ematea Arantzako Udalaren bikote egonkorren udal erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzaren indargabetzeari.

2.- Hasierako onespinen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrek aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ezean, behin betikoa egite testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Idazkariak eta alkateak EH Bildutik helarazitako martxoaren 8ko zirkularren berri ematen dute. Horri dagokionez, nahiz eta dagoeneko martxoaren 8a pasa den, osoko bilkurak beharrezkoa ikusten du adierazpen instituzional bat egitea emakumearen egunaren inguruan, instituzio publikoen jarrera eta babesa adieraztea funtsezkoa dela iruditzen zaie eta.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- EH Bildutik helarazitako martxoaren 8ko adierazpen instituzionalera atxikitzea.

7. EREMU PUBLIKOAN TERRAZAK ETA OSTALARITZARI LOTUTAKO BERTZELAKO ELEMENTUAK JARTZEKO TASA ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak adierazten du eremu publikoan terrazak eta ostalaritzarekin lotutako bertzelako elementuak jartzea arautzen duen ordenantzaren behin betiko onespina 2022ko urtarrilaren 31ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela. Ordenantza horren xedapen iragankorrak honako hau zioen:

“Lehenengoa.–Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat datorren ordenantza fiskala onartzen den bitartean, gaur egun indarrean dagoena aplikatuko da, dagokion tasaren eremu fiskal eta arautzaile soilean.”

Horri dagokionez, osoko bilkurak lehendik zegoen tasa eguneratu beharra dagoela ikusirik, tasaren kalkuluak egiten ditu honako hau berritzeko. Horrela bada, eremu publikoan terrazak eta osalaritzarekin lotutako bertzelako elementuak jartzeko tasa okupatutako eremuaren arabera egitea dela bidezkoena dela deritzote, honako hau 5 €/m² eta hilabete bakoitzeko izanik, urteko zein udako aldirako.

Idazkariak azaltzen du honako aldaketa hau onartu ahal izateko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325 artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Eremu publikoan terrazak eta ostalaritzari lotutako bertzelako elementuak jartzeko tasa aldaketari hasierako onespenera ematea, honako hau izanik tasa berria:

Aldia	Zenbatekoa m ² -ko	Epea
Urtekoa eta udakoa	5 €	hilero

2.- Hasierako onspenaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ezean, behin betikoa egite tasa aldaketa eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

8. ZERBITZU ANITZETAKO PEI BAT ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA.

Alkateak eta idazkariak azaltzen dutenez, uda hurbil dagoela kontuan hartuta, Arantzako zerbitzu anitzetako arduradunari lan-karga handitzea dakarkionez, komeniko litzateke zerbitzu anitzetako pei bat kontratatzea. Era berean, jakinarazi dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntzak daudela langabezia dauden pertsonekin sinatutako kontratuak finantzatzen laguntzeko.

Horretarako, idazkariak langile horren kontratazioa arautuko duen deialdia idatzi du eta osoko bilkuran azaltzen du oinarri nagusiak adostu ahal izateko.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Zerbitzu anitzetako pei baten kontratazioa arautuko duen deialdiaren oinarriak onartzea, aldi baterako lan-kontratu batekin eta hautaketa-proben bidez.

Hau horrela izanik, Administrazio elektronikoa arautzen duen Ordenantza azaltzen du idazkariak. Honako hau onartu ahal izateko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325 artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra da.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Administrazio elektronikoa arautzen duen Ordenantzari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrik aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ezean, behin betikoa egite testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. ARANTZAKO UDAL LAEE ONESPENA.

Osoko bilkurak 2018ko urriaren 8an egindako bilkura arruntean, Arantzako Udal Plan Orokorra onartzeko prozesua hasteko erabakia hartu zuen, eta Arantzako Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Ereduaren atariko bertsioaren dokumentua jendaurrean jartzea erabaki zen, hilabeteko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Horrela, herritarrek iradokizunak egin ahal izateko, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jendaurreko epea igaro ondoren (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 205. zk., 2018ko urriaren 23koa, eta Noticias y Navarra egunkariak), Partaidetza Planaren ondorio hauek eta fase honetan egindako txostenak hartu dira kontuan.

Era berean, Arantzako Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Ereduaren dokumentua aldeztuz Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzaren arloan eskumena duen Sailarekin itundu da, definitutako lurralde-eredua osatzen duten elementuei buruz eta Udal Hirigintza Planaren fasean garatu beharrekoak buruz. Ondorioak eta gogoetak 2019ko maiatzaren 10eko Txosten Teknikoan ezarritakoak dira.

Era berean, LFOTUren testu bateginaren 71.5 artikulua ikusita, Udalbatzak, aldeztuz aitzinetik eztabaidatu ondoren, honako hau ERABAKI DU LEGEZKO GEHIENEK:

- 1.- Arantzako Udalak izapidetzen duen Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredua onartzea, Arantzako Udal Hirigintza Plana onartzeko prozesuari dagokionez.
- 2.- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Arantzako Udalak sinatu beharreko Aurretiazko Itunaren idazketa onartzea, ondoren Udal Hirigintza Plana idazteko.

2.- Pantaleon Errandonea Unsain eta Javier Iparraguirre Almandozen aprobetxamenduak bertan behera uztea.

3.- Asuncion Bereau Vergararen aprobetxamendua bertan behera uztea eta azken 4 urtetako kanona itzultzea, itzulketaren kopurua 80 €-koa izanik.

4.- Akordioa hau interesdunei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

10. ALKATEAREN EBAZPENAK

8/2022 eta 24/2022 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

11. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 20:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte

